

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen

Irakaskuntzan

Berezko Tituluko Proiektua

EGela Pre:
hezkuntza espetxean IKTen bitartez.

Egilea

Itsaso Izagirre Narbaiza

Zuzendaria

Montse Maritxalar Anglada



ueu

udako
euskal unibertsitatea

2018

Laburpena

Lan honetan, EGela Pre, LMS eredu baten diseinuaren garapena eta inplementazioa azalduko da. Berau, espetxeetatik ikasten duten ikasleen baldintza berezietara moldatuko da. Ikasle presoa izateagatik ematen diren baldintzak ezagutu eta aztertu ostean, egoera horietara egokitutako plataforma planteatuko da. Horrek, erabilera bikoitza izango du, lehena, unibertsitateko kudeaketa administratiboa bideragarri egitea eta bigarrena, kalitatezko goi mailako hezkuntza eskaintzea. Plataforma horren erabilerak konpetentzia digitalen lanketan eta hobekuntzan izan ditzakeen eraginak aipatuko dira, eta horiek, era berean, inklusiorako bidean izan dezaketen eragina kontuan hartuko da. Esperientzia pilotuan izandako zailtasunak adieraziko dira eta etorkizunera begira bideragarriak izan daitezkeen helburuak zehaztu.

Gaien aurkibidea

Laburpena.....	2
Irudienaurkibidea	4
1. Sarrera	5
Helburuak.....	5
IKTak inklusiorako bidea.....	5
LMS ereduaren diseinua EGela Pre.....	5
Hezkuntza egokitzapena	6
1.1 Ekarpinak	6
2. IKTak inklusiorako giltza.....	6
2.1 Inklusioa kartzelan.....	6
2.2 Goi mailako hezkuntza kartzelan	7
2.3 IKTak eta konpetentzia digitalak kartzelan.....	9
3. Konpetentzia digitalak rolak eta baliabideak	11
3.1 Rolak.....	12
3.1.1 Orientazio teknikaria.....	12
3.1.2 Ikastegiko hezkuntza koordinatzailea	14
3.1.3 Irakaslea	15
3.1.4 Presondegiko koordinatzailea	16
3.1.5 Ikasle presoa.....	17
3.2 Baliabideak.....	18
3.2.1 Kudeaketa Baliabideak.....	19
3.2.2 Hezkuntza Baliabideak	21
4. LMS proposamena, Moodle plataforma oinarri hartuta.....	23
4.1 Kudeaketa proposamena	24
4.1.1 Informazioa.....	24
4.1.2 Komunikazioa	25
4.2 Hezkuntza proposamena.....	26
4.2.1 Ikaskuntza autonomia.....	26
4.2.2 Ebaluazioa.....	29
5. LMS inplementazioa “EGela Pre kartzelan”	30
5.1 Kudeaketa esperientzia	31
5.1.1 Informazioa.....	31
5.1.2 Komunikazioa	33
5.2 Hezkuntza esperientzia	33

5.2.1	Ikaskuntza autonomoa.....	33
5.2.2	Ebaluazioa.....	36
6.	Emaitzak eta ondorioak.....	38
6.1	Esperientziaren emaitzak.....	38
6.2	Ondorioak.....	40
7.	Bibliografia.....	42
8.	Eranskinak.....	44

Irudienaurkibidea

1.1	irudia: baliabideen erabilera bereizketa.....	18
1.1	Taula: baliabideen erabilera.....	19
1.3	irudia baliabideen komunikazio ibilbideak.....	23
1.4	irudia: komunikazio erreala.....	31
1.5	irudia: EGela Pre kudeaketarako.....	32
1.6	irudia: Ikasgaien egitura.....	34
1.7	irudia: Foroa.....	36
1.8	irudia: Ikaslearen (kasu honetan Presondegiko koordinatzailea) aktibitatea.....	39

1.Sarrera

Jarraian agertutako lanak preso dauden ikasleei goi mailako hezkuntzan ikasteko aukera hobetzeko proposamena luzatzen du. Horretarako, lehenik eta behin, preso dauden pertsonak gaur egun ikasteko dituzten baliabideak aztertuko dira, eta ondoren, gizarteratzeko metodo bezala, espetxean egonagatik sortu daitekeen arrakala digitala murrizteko pausu batzuk proposatuko dira.

Helburuak

IKT eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan berezko titulu honetan landu ditugun kontzeptuekin bat datozen hiru helburu landu nahi dira lan honetan. Izan ere, presondegietan dauden ikasleentzat teknologien erabilera bultzatu nahi da, hezkuntza eredu pedagogikoa egokitu eta konpetentzia digitaletan hobekuntza lortu.

IKTak inklusiorako bidea

Hezkuntzaren helburu nagusia pertsonen gizarlean moldatzeko baliabideak eskaintzea bada, gaur egun, ezinbestekoa da konpetentzia digitaletan hezteak. Espetxeetan ere, hezkuntzaren helburua berbera dela kontuan izanik, beharrezkoa da gai hau jorratzea. Proposamen honekin, beraz, ate bat zabaltzen da espetxeetan modu transbertsal batean gaitasun horiek bermatzeko.

LMS ereduaren diseinua EGelaPre

Kartzeleko moodle plataforman oinarritutako baliabide mugatu bat eskainiko zaie, horrek, jakina, segurtasun neurriak bermatuko espetxeetako politiken kontra joan ez dadin, Horrela, ikasleek, era autonomo batean, ikasketak modu eraginkorrean aurrera eramateko aukera izango dute.

Hezkuntza egokitzapena

Gaur egun goi mailako ikasketak egiten dituzten presoentzako hobekuntza pedagogiko bat eskaintzea IKTek ematen dituzten aukerak aprobetxatuz.

1.1 Ekarpenak

Unibertsitate ikasketak espetxeetan aurrera eramateko dauden zailtasunak ezagutu eta kontuan hartzeaz gain, moodle plataforma oinarritzat hartuta kudeaketa eraginkorrago eta azkarrago bat bideratzeko baliabidea sortu da.

Era berean, e-learning ereduarekin bat datorren azpiegitura proposatu da unibertsitaterako, hezkuntza egokitzapen pedagogikoan hastapenak emateko. Prozesu honetan inplikaturik dauden figuren arteko elkarlana hobetzeko aurrerapausoak eman dira, espetxean egoteagatik sortzen diren mugei aurre egiteko. Hori guztia, helburu nagusia aintzat hartuta: presoek kompetentzia digitaletan oinarritzko maneiu bat izatea.

2. IKTak inklusiorakogiltza

2.1 Inklusioa kartzelan

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak "Guztiontzat kalitatezko hezkuntza inklusiboa, berdintasuna bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak sustatzea" du xede. Hiritartasuneko sarbiderako funtsezko eskubideen baitan, -eta 2013an kaleratutako Europako Espetxeetako hezkuntza eta formakuntzari buruzko txostenean jasota dagoen bezala-, Europar komisioak hartutako erabakiaren arabera, ekitatea, gizarte kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea da helburua, bereziki kontuan hartuta ikasketetatik baztertzeko egoeran dauden pertsonak, esaterako, presoak. Ez da ahaztu behar kolektibo honentzat espetxetik ateratzean eskusio egoeran ez geratzeko giltzarria hezkuntza dela. Ikasketak ez dira, denbora okupatuta izateko zerbaitekin, enplegarritasunerako askotariko

aukerak zabaltzeko bidea baizik. Areago, askatasunean bizitzeko baliagarri izango diren gaitasun espezifikoak garatzeko lanabesa ere bada.

Presondegietako politika, teoriarik gizarik-diskurtso orokorrarekin bat datorren arren, zigorretan espezializatutako gizarik bereizirik bat da, botere legegileak arautu, botere judizialak epaitu eta espetxe-erakundeek kudeatzen dutena, eta, azken urteetan, gizarik zibilaren kritikarik zuzena jasan duena. Horiek horrela, kartzelan dena kontrolatua dago, segurtasunaren izenean, baita hezkuntza ere (J. Braggins eta J. Talbot, 2006). Hezkuntza, gaur egun, onurararako tresna bezala erabiltzen da, hau da, sari bezala, eta era berean, zigor moduan ere erabil daiteke, materialerako sarrera mugatuta, adibidez. Horregatik, espetxean kalitatezko hezkuntza zer den ulertzeko, bertan ematen diren baldintzak kontuan izan behar dira.

2.2 Goi mailako hezkuntza kartzelan

Espetxean ikasteko baliabideak badaude, ikasleak bada, hezitzaileak ere, denbora sobera baita ikasketak burutu ahal izateko hitzarmen eta politikak ere. Zer-nolakoak dira horiek, ordea? Politikoki zehaztutako baliabideak izan arren, aukerak ez dira bikainak nahiko urriak baizik, ikasgela kopurua, materiala, pertsonala... Atal honetan, espetxeetan lan egiten duten hezitzaileengan zentratuko gara batik bat. Izan ere, hezkuntza arloko profesional horiek duten rola oso garrantzitsua da, ezinbestekoa. Lanbide heziketa eta funtsezko ezagutzak eman ohi dituzte, ez da ahaztu behar estatu espainolean, adibidez, 2014-2015 ikasturtean espetxeetan zegoen populazioaren %80k baino gehiagok (Moledo, Portela Alvarez, 2017) lehen hezkuntzako ikasketak baino gutxiago zituela. Hori dela eta, espetxeetako hezkuntza arduradunen funtzio pedagogikoak oso zabalak dira, hala nola, oinarrizko matematikak irakastea, irakurketan laguntzea edota lanera bideratutako praktikak irakastea.

Halaber, goi mailako ikasketak burutu nahi dituzten ikasleei baliabideak eskaintzen dizkietenak ere badira. Estatu espainolean, 2002-2003 ikasturtean 476 ikasle ziren goi mailako ikasketetan matrikulatuak (Viedma, 2003). Ikasle horiengan jarriko dugu arreta lan

honetan. Esan bezala, espetxean ikasketa hauek aurrera eramateko, hezitzaileak dira gakoa. Beraiek gabe ezin. Hala ere, kontuan izan behar dugu profil honetako pertsonak gutxiengo bat direla, beraz, presondegietako hezkuntza arduradunek goi mailako ikasketak burutzen dituzten ikasleei eskaini beharreko baliabideak optimizatu egin behar dira.

Gaur egun, espetxeetan dauden ikasleen gehiengoarentzat eskaintzen den formakuntza ereduak, e-learning bezala ezagutzen dugun kontzeptutik oso urrun dago. Urrutiko hezkuntza definitzerako orduan Garrison eta Anderson-ek (2005) egindako sailkapenaren arabera lehenengo belaunaldian kokatu daiteke, hau da, ikasleek ikasgai bakoitzean oinarritzkoa den bibliografia jasotzen dute, %80 testu liburuak dira, eta bertatik zuzen zuzenean ikasi behar dute. Den dena idatziz jasotzen dute eta guztiz autonomoki egin behar diote aurre ikasgai bakoitzari. Holmerg-ek (1989) aipatutako interakzio didaktiko gidatura heltzea ere, askotan kostatzen da. Hala, irakasleekin harremana epistolarra izaten da, -bai, pasadan mende hasieran bezala-, eskuz idatzitako kartaz gehienetan, kasu gutxi batzuetan telefonoz. Honekin batera kontutan izan behar dira atzerapenak, hau da, materiala jaso orduko hilabeteak pasa daitezke, gutun baten erantzun jasotzeko beste horrenbeste eta honek frustrazioa sor dezake (Vazquez Cano, 2013) .

Egia da, bai, azken urteetan bigarren generazioko urrutiko ikastaroetara salto egiten hasiak direla presondegiak ere. Hau da, baliabide informatikoak onartzen hasiak dira, ikasleek ordenagailuak dituzte, presondegietako koordinatzaileekin e-mail bidez gero eta komunikazio gehiago burutzen dira, eta CDromak eta kasu batzuetan pendriveak erresartzea posible bihurtu da, hori bai, helburu pedagogikoak ondo justifikatu ostean. Ate hauek zabaltzen hasiak direla aprobetxatu behar da kalitatezko urruneko hezkuntza bideratzeko pausoak ematen hasteko.

Espetxean ikasteak asko murrizten ditu irakasle eta ikasleen arteko komunikazioak, ia ezerezean gelditzeraino kasu askotan. Ikasleak, hortaz, bakar bakarrik ikasi beharko du, eta bere ikasteko ohitura izango da ikasketak aurrera eraman ahal izateko funtsa. Distantziara ikasten duen beste ikasle batek ez bezala, espetxean, ikasleak ez du autonomiarik bere

denbora antolatzeko edo ikasteko espazioa erabakitzeko (Viedma, 2003). Unibertsitate mailako ikasketak burutzeak gizarteratzeko eta lanean sartzeko bide gisa ulertzen dute ikasle presoek maila altu batean (Vazquez Cano, 2013), eta ikastea eskubide unibertsal bat den heinean, baldintzak eskaini behar zaizkie helburu hau aurrera eramateko.

Esan beharra dago, kartzelan goi mailako ikasketak egitea, orokorrean, presondegira heldu aurreko ikasketa-prozesuarekin izan duten esperientzia onarekin estuki lotuta dagoela (Viedma, 2013), hau da, ikasketa-prozesua ez dute modu traumatikoan bizi izan eta nahiz eta ohitura galduta eduki, kasu batzuetan, ikaste-prozesua ez da arrotza beraientzat.

MadrilVIIko kartzelan ikasleen ikas-itxaropenaren inguruko ikerketan, Vazquez Canok (2013) jaso zuen bezala, presondegietan ikasteko beharrezkoak diren oinarrizko bitartekoak oso urriak dira, bibliografia, tutoreen laguntza edo ikaskuntza taldeekin komunikatzea, adibidez. Izan ere, materiala berandu iritsi ohi da ikasleen eskuetara, tutoreekin duten harremana oso urria izaten da eta komunikazio esanguratsu bat sortzea zaila. Hori dela eta, ezinbestekoa da egoera honetara egokituko den egokitzapena sortzea, eta eran berean, hori bideragarri egingo dituzten baliabideak erabiltzea.

2.3 IKTak eta kompetentzia digitalak kartzelan

Lan honetan kontuan hartu behar dugun beste faktore garrantzitsua Interneterako sarbidea da, eta horrekin lotuta, IKTekiko harremana. Jakina da espetxeetan interneterako sarbidea oso mugatua dela, guztiz mugatua ez esatearren (Barreiro-Gen et al., 2015). Hori horrela izanik, egin nahi dugun proposamena, LearningManagement System-ean (aurrerantzean LMS) oinarritutako e-learning prozesu bat martxan jartzean da eta horretarako ezinbestekoa izango da etorkizunean egoera hau aldatzea. Lehenik eta behin, IKTetara ohitzea behar beharrezkoa delako egun jendarteratua egoteko eta, bigarrenik, 2010ean Budapesten ospatu zen «*Pathways to inclusion – Strengthening European Cooperation in Prison Education and Training*» konferentzian aipatu bezala, e-learninga espetxeetan erabiltzea ezinbestekoa baita.

Hezkuntzarako eskubidea bermatu nahi bada, e-learninga da, hori bideragarriegin dezakeena. Ikasle presoek plataforma birtual bat eskura izanda, momentuan izango lukete ikasturte guztirako beharrezko den materiala; era berean, tutoreekin komunikatzeko kanal eraginkor bat ere eskuratuko lukete. Horrela, aurretik aipaturiko Vazquez Canoren (2013) ikerketan adierazten diren arazoak gaindituta, ikasketak aurrera eramateko sortzen diren zailtasun asko, konponduko lirateke.

Espetxe-erakundeek IKTak hezkuntzan erabiltzeko arazo nagusia segurtasunada, beldur hau, aldiz, gaindi liteke LMS eredu mugatu bat planteatuz gero. Honekin zera esan nahi dut, lokalean edo espetxeen arteko zerbitzarietan, kontrolpean kokatuta egon daitekeen sistema bat izan daitekeela. Ikasleek pasahitz bidez, modu kontrolatu eta monitorizatuan, izango lukete plataformarako sarrera, horrela, sarean dauden web orrietara sartzeko aukerak mugatzen dira.

Dagoeneko hainbat esperientzia martxan jarri dira Estatu espainolean, esaterako, UNEDek 2010-2011 ikasturtetik abian jarritako ALF plataforma (Moledo, Portela, Álvarez, 2017). Zoritxarrez, ikasleek bertaratzeko sarrera mugatua dute segurtasun arrazoiengatik. Egia esan, irakaskuntza materialak eta egin beharrekoak ikusi besterik ezin dute egin, gainera, inprimatzea galarazita dute. Elkarlanerako zailtasunak ere handiak dira: irakasleekin mezu elektronikorik ezin da elkartrukatu ez eta foroa erabili ere.

Europar egoera bestelakoa da, Europako espetxeetako hezkuntza eta formakuntzari buruzko txostenean (Hawley et al., 2013) agertzen diren esperientziak agertzen duten bezala. Hona bi adibide:

Suedian, egindako esperientziaren ostean, esaterako, ondorioztatu daiteke, plataforma birtual batek kartzelan ohikoak dituen urritasunak gainditzeko aukerak zabaltzen dituela. Ikasle bakoitzak bere LMSan bere portfolioa du, beraz, dokumentazio guztia eta egindako lana eskuragarri izango luke nahiz eta, oso ohikoa den bezala, kartzelaz aldatu. Hau da, ikas-material guztia kartzela-artekeko zerbitzari itxi batean kokatuta dagoenez, ikaslea

egun batetik bestera espetxez aldatuta ere, plataforma birtualerako sarrera baimentzen dioten momentuan bertan dokumentazio guztia eskuratuko luke.

Erresuma Batuan ere, "Campus Virtual" seguruak sortuak dituzte. Kasu honetan, ikasle bakoitzak bere erabiltzailea du etaplataforman zehar ibiltzeko nahiz interneteko eremu batzuetara sartzeko aukera zabalagoa edo mugatuagoa izango du zigor mailaren arabera. Plataforma honetan egiten den guztia monitorizatu dagoenez, arriskua kontrolatua dago. Ildo beretik, Europar komisioak 2013an hartutako erabakiekin guztiz bat datorrenez, eta beste herrialdeetan martxan dauden plataformak ezagutu eta egon daitezkeen arazoak kontuan izanda, LMS proposamena luzatzea da lan honen helburua.

Jakina denez, UPV/EHUK ikasle presoentzako protokolo bat du martxan, horren arabera, 2014tik Espainiatik kanpo dauden ikasle presoek UPV/EHUn ikasteko eskubidea dute. Zerbitzu horrek ikasketak aurrera eramateko orientazioa, beharrezko material didaktikoaren kudeaketa eta ebaluaketa prozesu segurua bermatzea du helburu; proposamen honekin, hori guztia modu eraginkorrago batean aurrera eramateko baliabide bat eskaini nahi da. Horretarako, Moodle (2018) plataforma oinarritzat hartu da, bai kudeaketa errazteko baita hezkuntza e-learning eraginkor batetara egokitzen hasteko ere. Bide batez, baliabide honen erabilerari esker, zeharka bertan parte hartzen duten askotariko agenteen konpetentzia digitalak garatuko dira.

3. Konpetentzia digitalak rolak eta baliabideak

Presondegietan dauden ikasleek ikasketak aurrera eramango badituzte, funtzio desberdinak dituzten pertsonen arteko koordinazioa egon behar da. Edozein hezkuntza sistematan bezala, rol desberdinak dituzten pertsonen elkarlana ezinbestekoa da hezkuntza helburua betetzeko. Beraiek, hainbat baliabide erabiliz, konpetentzia batzuk garatuko dituzte. Kasu honetan, adibidez, proiektu honetan parte hartzen duten agenteak bost dira; horiek, esan bezala, rol eta konpetentzia desberdinak garatuko dituzte.

Prozesua honakoa da: lehenik eta behin ikaslea matrikulatu egin behar da, lehen pauso hauorientazio teknikariaren bitartez emango da; Ikastegikohezkuntza koordinatzaileari komunikatuko zaio eta bera ikaslea matrikulatuta dagoen ikasgai guztietako irakasleekin harremanetan jarriko da; bitartean, orientazio teknikariak, presondegiko koordinatzailearekin komunikazio bidea zabalduko du, ikaslearen asmoen berri eman eta hezkuntza prozesua bien artean martxan jartzeko.

3.1 Rolak

Jarraian, ikasketa prozesu arrakastatsu bat emateko, bost horiek izango dituzten funtzioak aztertuko dira banan-banan, beraien arteko komunikazio kanalak zehaztuko dira, erabiliko dituzten bitarteko digitalak aipatu eta horrekin batera landuko dituzten konpetentzia digitalen azterketa egingo da.

3.1.1 Orientazio teknikaria

Moodle plataforman izango duen rola administratzaile orokorrarena izango da. Gela bana sortuko du ikasle bakoitzeko, bertan bakoitzari dagozkion ikasgai guztiak eta oinarrizko eskema bat egongo dira. Ikasle guztien gelen administraria izango da. Berari dagokio irakasle koordinatzaileari, presondegiko koordinatzaileari eta ikasleari baimenak esleitzea. Kudeaketa dokumentuak igo eta presondegiko koordinatzailearekin harreman kanalak zabalduko ditu..

Funtzioak

- Ikasketen, titulazioen eskaintzaren, arautegiaren, protokoloaren, etabestelakoen inguruko informazio eta aholkua ematea.
- Kartzelako koordinatzailearen, ikasleen eta hezkuntza koordinatzailearen arteko bitartekaritza egitea ikasketen arloko galderei erantzuna emateko.

- Ikasketak aurrera eraman ahal izateko plataformaren kudeaketa. Ikasle bakoitzaren plataforma sortzea, ikasgai guztiak zehaztea eta moodleplataforma barneko rolak banatzea.
- Administrazio-argibideetarako materiala egitea eta ikaslearen EGela Pren kudeaketa bideragarria egiteko atala administratzea espetxeko koordinatzailearentzat.
- Moodle plataformaren kudeaketa, ikasgaiak jarraitu beharko duten diseinu orokorra zehaztea. Materiala igotzeko karpetak sortzea, ikasgai guztiek egitura berdintsua mantentzeko asmoarekin.
- Paperean bidali beharko diren materialak batu eta bidaltzea. (bibliografia orokorreko liburuak).
- Azterketen kudeaketa plataformaren bitartez, datak zehaztu eta segurtasuna bermatuko duten baldintzak ezarri.

Konpetentzia digitalak

- Informazioaren erabilera on bat izan behar du, batez ere, jabego intelektualari buruzko araudia ezagutu behar du, ezin baita edozer gauza bertan zintzilikatu.
- Baliabide digitalek eskaintzen dituzten aukerak ezagutu eta aprobetxatu behar ditu eduki digitala sortzeko.
- Teknologia digitalen bitartez elkar eragiten dela ezagutu eta hori bultzatzeko bitartekoak sortu beharko ditu. Foroaren erabilpena bultzatu.
- Sarean, batez ere, kartzelarekin eta presoekin gabiltzanez, segurtasun neurriak bermatu beharko ditu. Erabiltzaileen pasahitzen kudeaketa segurua ziurtatu behar du, adibidez, baita publikoak izango diren atalen konfidentziasuna bermatu ere.
- Moodle plataforma kudeatzen jakin beharko du, horrek eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta eginbeharreko moldaketa bideratu.

3.1.2 Ikastegiko hezkuntza koordinatzailea

Moodle plataforman, berak koordinatzen dituen ikasketetako ikasleen geletako administraria izango da. Bertan, ikasle bakoitzaren ikasgaiak ikusiko ditu eta dagokion irakasleari emango dio altan. Koordinatzaileak ikasgai guztietara sarrera izango du eta ikasgai bakoitzean dagokion irakasleak izango baimena. Azterketen segurtasuna bermatzeko, protokoloa pasatu beharko die irakasleei denek baldintza berdinak ezar ditzaten. Protokoloan ezarrita dagoen bezala, presondegiarekin harreman zuzena orientazio teknikariak du, beraz, nahiz eta alderdi pedagogikoa honek kudeatu, azken harremana teknikariaren bitartez izango da.

Funtzioak

- Izenak esaten duen bezala, duen funtzio nagusia koordinatzea da
- Ikaslea matrikulatuta dagoen ikasgaietako irakasle guztiei, ikasle honek izango dituen hezkuntza baldintza bereziak azaldu eta ikasketa gida egokitua egiteko pausoak emango dizkie.
- Plataformaren berri eman eta beharrezkoa balitz formakuntza saioak antolatzea beharko ditu; zer igo dezaketen bertara azalduz eta zer ez erakusteko.
- Irakasle bakoitzari bere ikasgairako sarrera emango die plataforman.

Konpetentzia digitalak

- Zer informazio zintzilikatu daitekeen plataforman, eta zer ez jakin behar du. Informazioaren erabilera on bat zer den jakin behar du eta baldintza horiek zabaldu behar ditu beste irakasleen artean. Jabego intelektualari buruzko araudia ezagutu behar du.
- Baliabide digital desberdinak erabil ditzaketela ezagutu behar du baina kontutan izan behar du, deskargagarriak izan behar direla, hau da, Youtubeko bideo bat zintzilikatzea ez dela komeni jakitea; posible baita sarrera horiek blokeatuta izatea. Podcastak erabiltzea gomendagarriagoa da. Horretarako sortutako egokitzapen gida kontuan hartuz.

- Moodle plataforma kudeatzen ikasi beharko du, honek eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta eginbeharreko moldaketak bideratu.

3.1.3 Irakaslea

Moodle plataforman, bere ikasgaien bakarrik editatzeko aukera duen irakaslea izango da. Beste ikasgaietako materialak ikusi ahalko ditu baina ezingo ditu editatu. Ikaslearekin harreman zuzena izateko foroa edukiko du eskura.

Funtzioak

- Baldintza hauetan ikasi behar duen ikaslearentzako egokitutako programadiseinatu beharko du.
- Plataforma erabiliz helarazi daitekeen bibliografia sortu beharko du. Horretarako material pedagogiko osagarria osatu beharko du: apunteak, ariketak, etab.
- Azterketak prestatu beharko ditu eta plataformara igo aurretik azaldutako baldintzak ezarri. Azterketarik ez bada ere, lanak igotzeko baldintza beretsuak ezarri beharko ditu.
- Ikasleak foroaren bitartez duda edo galderaren bat eginez gero, erantzuna eman beharko dio, ikasketa prozesua eraginkorra izan dadin. Edo bestelako tutoretza sistema bat proposatu.

Konpetentzia digitalak

- Ze informazio zintzilikatu daitekeen plataforman, eta zer ez jakin behar du. Jabego intelektualari buruzko araudia ezagutu behar du. Era berean ondo bereiztu beharko du informazioa, izan ere, ikasle hauek bakarrik daude eta informazio larregi emateak galtzea ekar dezake. Beraz filtratze lan bat egitea beharrezkoa da.
- Baliabide digital desberdinak erabil ditzaketela ezagutu behar du baina kontutan izan behar du, deskargagarriak izan behar direla, hau da, Youtubeko bideo bat ez da

komeni zintzilikatzea, ez bada deskargatu daitekeela. Podcastak erabiltzea gomendagarriagoa da. Horretarako sortutako gida kontuan hartuz

- Moodle plataforma ezagutu beharko du, dokumentazioa igotzen eta baldintzatutako ariketak sortzen (azterketetarako), nahiz eta plataforma horretarako predeterminatuta egon.
- Teknologia digitalen bitartez elkarreragiten dela ezagutu eta hau bultzatzeko bitartekoak sortu beharko ditu.

3.1.4 Presondegiko koordinatzailea

Moodle plataforman edizio baimenik gabeko irakaslea. Izan ere, espetxean, bera da irakaslea, beraz, tratamendu hori izatea da dagokiona. Hori dela eta, espetxe horretan dauden ikasle guztien e-geletara sartzeko baimena izango du, eta bertan dagoen material guztia ikusteko baina ezingo du inolako aldaketarik egin. Foroan idazteko baimena izango du eta hau baikoordinazio lanetarako zein kudeaketarako erabil ditzake.

Funtzioak

- Ikasleari ikasketak aurrera eramateko beharrezkoak diren material guztiakematea.
- Orientazio teknikariarekin, beharrezkoak diren administrazio lanak egitea.
- Foroaren bitartez zein e-mailez, harreman zuzena izango du orientazio teknikariarekin, sor daitezkeen arazoak lehen bait lehen konpondu ahal izateko.
- Ikasleei eta matrikulatutako irakasgaien edukietara sarbidea ematea litzateke eginkizun nagusia betiere segurtasun baldintzak bermatuta.
- Espetxean moodle plataforma mugatu honetara,sartzeko baimenak kudeatzea.
- Ikasleari moodlen oinarritzko erabilerarako formakuntza eta laguntza eskaintzea.

Konpetentzia digitalak

- Plataforma erabiltzen ikasi beharko du,bertan dauden erramintak ezagutu eta funtzioak desberdindu.

- Gerta daitezkeen arazo teknikoak gainditzeko baliabideak behar ditu izan.
- Ikasleak lanak eta azterketak garaiz egin eta igo ahal izateko baliabideak eskaini beharko ditu.

3.1.5 Ikasle presoa

Moodle plataforman, ikastaro bakoitza ikasle bakoitzera egokituta egongo da. Matrikulatuta dagoen ikasgai guztietara EGelaPre bakar batetik sartuko da eta bertan izango du, ikasturte osoan zehar beharko duen materiala. Ikasle orok dituen eskubide eta betebeharrak berdinak izango beharko lituzke.

Funtzioak


- Behar duen materiala, aztertu eta egoki erabiltzea ikasgai bakoitzean zehazten diren helburuak bete ahal izateko.
- Azterketak eta lanak garaiz egin eta entregatzea.
- Dituen dudak zein zalantzak dagokionari bideratzea.

Konpetentzia digitalak

- Oinarrizko informazioaren kudeaketan trebatu beharko da. Posible da, horrelako plataformekin harreman handia ez izatea, beraz funtsezko pausuak ikasi beharko ditu.
- Dokumentazioa jaisten, deskargatutako informazioa ondo gordetzen, ordenagailuan karpetak sortzen, hau da, material hau materiala ongi kudeatzen ikasi beharko du.
- Eduki desberdinak sortzeko gaitasuna izatea, hau da, eskatutako lanak dagozkien programak erabilizegin beharreko zereginak ondo betetzea.
- Plataformako baliabide desberdinak erabiltzen ikastea. Egindako lanak igotzen jakitea. Galdetegi mota desberdinak izanda ere betetzen jakitea.
- Kolaboraziorako tresnekin komunikatzen ikastea, foroairakasleekin tutoretzak izateko erabiltzea.

3.2 Baliabideak

Lehenik eta behin 1.1 irudian agertzen den bezala baliabideetan desberdinketa bat egitea beharrezkoa da. Lehenengoa, kudeaketarako erabiliko dena, batez ere, presondegiko koordinatzailearekin. Eta bigarrena, ikasleekin erabiliko dena, hezkuntza baliabide bezala kalifikatuko duguna.



1.1 irudia:baliabideen erabilera bereizketa

Kasu batzuetan baliabide batek bi funtzioak bete ditzake tokian toki, 1.1. taulan agertzen den bezala. Baina baliabide batzuk, hezkuntzakoak batez ere, oraindik ezingo dira martxan jarri horregatik, aurreko irudian marra etenarekin agertzen dira.

Nork	Nori	Zer	Helburua
Orientazio Teknikariak	Presondegiko Hezkuntza koordinatzaileari	Web orria	Kudeaketa Informazioa
Orientazio Teknikariak	Presondegiko Hezkuntza koordinatzaileari	Liburutegia	Kudeaketa Informazioa
Orientazio Teknikariak	Presondegiko Hezkuntza koordinatzaileari	Foroa	Kudeaketa Komunikazioa
Orientazio Teknikariak	Presondegiko Hezkuntza koordinatzaileari	Zereginak	Kudeaketa Komunikazioa
Irakasleak	Ikasleari	Liburutegia	Ikaskuntza autonomia

Nork	Nori	Zer	Helburua
Irakasleak	Ikasleari	Zereginak	Ikaskuntza autonomoa
Ikasleak	Irakasleari	Foroa	Tutoretza
Irakasleak	Ikasleari	Kolaboraziorako baliabideak	Elkarlana

1.1taula: baliabideen erabilera

3.2.1 Kudeaketa Baliabideak

Presondegiekin harremana bermatu eta ikasleek ikasketak aurrera eramateko beharrezko baldintzak eskaintzeko, Ikasle presoentzako arreta zerbitzuak egiten duen lana, hein handi batean kudeaketakoa da. Horregatik, kudeaketa eraginkor bat lortzeko baliabide fidagarriak izatea ezinbestekoa da. Hau hobetu asmoz hona hemen erabiliko diren tresnak.

3.2.1.1 Informazioa zabaltzea

Lehenik eta behin, Frantziako espetxeekin lan egiten dela kontutan izan behar da, hau da, komunikazio guztia frantsesez izan behar da. Honek informazio helarazteko sortu ditzakeen zailtasunekin. Moodlek eskaintzen duen balio handienetarako bat, hizkuntzarena da, izan ere orokorra dena automatikoki itzultzen du eta informazio guztia era garbi batean azaltzeko baliabideak eskaintzen ditu, jarraian agertu bezala.

Orrialde nagusia

Dokumentazio administratiboa kudeatzeko atala izangoda, ikastaro bakoitzak eskema berdina jarraituko du. Bertan, dokumentazio administratiboa egongo da presondegiko koordinatzailearentzat. Aurkezpen testua oinarrizko informazioarekin; ikaslea ikasten dagoen graduaren informazio orokorra; eta ikasturtearen programazioa. Azterketa datak ere bertan argitaratuko dira kurtsoa hastearekin bat, lehenengo eta bigarrenen deialdiaren datak zehaztuz, espetxean kudeatu beharrekoa prest izan dezaten.

Web orria

Presondegiko koordinatzailearentzat gida bat izango da, plataforma nola erabili behar duen jakinarazteko baliodu. Bertan kontakturako informazioa ere izango du eskuragarri.

Liburutegia

Bai koordinatzaileak zein ikasleak beharrezkoa duen dokumentazioa helarazteko atala: ikasturteko matrikula orri deskargagarria, nota ziurtagiriak, etagraduaren informazio orokorra. Ikasle presoek baimen berezi batzuk eman behar dituzte bere ordezkari gisa, gertuko pertsona bat izendatzeko. Dokumentu hauek ere, hemen, aurki ditzakete. Honek guztiak kudeaketa errazteko baliabideak eskaintzen ditu. Izan ere tramite hauek posta arruntez egiteak denbora tarte zabalak behar ditu eta horrela berehalakotasuna lortzen da.

3.2.1.2 **Komunikazioa**

Informazioa heltzea garrantzitsua den bezala, komunikazio eraginkor bat izatea ezinbestekoa da prozesua arrakastatsua izango bada eta moodlek hau bideratzeko tresnak eskaintzen dizkigu.

Foroa eta koordinazioa

Kartzelako koordinatzailearekin eguneroko gora beherak koordinatzeko erraminta baliagarria da, materialen bat falta bada abisatzeko, edo zerbait berria igo baldin bada jakinarazteko. Azterketa datak hurbiltzen daudela jakinarazteko edo prozesuan zehar aldaketa edo berrikuntzen berri emateko.

Foro hau ez da aldebakarrekobakarrik izango, Presondegiko koordinatzaileak, dituen duda guztiak orientazio teknikariari bideratzeko gunea da. Ikasle bakoitzaren zalantzak ikaslearen EGela Preko foroanbota ditzake orientazio teknikariak ahal bezain pronto kudeatu ditzan.

Zereginak eta administrazioa

Presondegiko koordinatzailearekin dokumentazio administratiboa igotzeko gunea izango da, ikasleak baimenak nori ematen dizkion justifikatzen duen dokumentuak igotzeko adibidez, edo administratiboki behar den edozein dokumentu bidaltzeko. Baita ikasleek administrazioarekin egin nahi dituen tramiteak bideratzeko ere. Atal honek nahi beste dokumentu igotzeko aukera ematen du eta ikasturteak dirauen bitartean zabalik egongo da komunikazioa arina izateko asmoz.

3.2.2 Hezkuntza Baliabideak

Nahiz eta guk kudeaketarako erabili, berez, moodle, hezkuntzarako diseinatutako baliabidea bada, horretarako erabiliko da. E-learningean oinarritutako, goi mailako ikastaro bat berme guztiekin aurrera eramateko EGela Pren erabiliko ditugun baliabideak honakoak izango dira.

3.2.2.1 Ikaskuntza autonomorako

Esan bezala, moodle da ikaskuntza autonomo esanguratsu bat aurrera eramateko gaur egun dagoen plataforma garatuenetariko bat, bertan hainbat baliabide desberdin aurki daitezke.

Liburutegia eta bibliografia

Dokumentazioa igotzeko tokia, ikasgaietako dokumentazio guztia, bai ikaskuntza gida zein ikasketak aurrera eraman ahal izateko bibliografia orokorra, apunteak, artikulak, eta hauek aurrera eramateko beharrezko dituen materialak. Dokumentu hauek guztiak, deskargagarriak izango dira, eta ikasleek aukera eduki beharko dute beraien ordenagailuan off-line erabili ahal izateko eta baita inprimatzeko ere.

Zereginak eta azken ebaluazioa

Azterketak eta lanak entregatzeko tokia izango da. Hau izan ohi da, presondegiekin arazoak ematen dituen momentu garrantzitsuenetariko bat. izan ere, azterketak garaiz heldu behar izaten dira espetxeetara eta egindako lan eta examinak bueltatu egin behar dira postaz, bidean galtzeko edo atzerapen handiak izateko arriskua izanik. Horregatik, plataforma erabiltzeak berehalakotasuna garantizatzen du.

Segurtasun neurriak bermatzeko, hau da, azterketa momentu konkretu batean bakarrik ikusi ahal izateko: baldintzatutako ariketa bezala planteatuta egongo da, eskuragarri bakarrik, data konkretu batzuen artean. Lehenago, baina, dokumentu sinatu bat igo beharko dute azterketa deskargatu ahal izateko edo lana igo ahal izateko. Behin azterketa edo lanak eginda, plataformara igotzea besterik ez dute egin beharko eta horrela irakasleak momentuan ikusi ahalko du.

Nahi izanez gero, notak ere, plataforman argitaratu daitezke eta ikasleak askoz azkarrago jasoko luke irakaslearen feedbacka.

Ariketa desberdinak eta ebaluazio jarraia

Moodle plataformak, ariketak egiteko beste hainbat aukera ematen ditu, ikasleak sarrera zuzena izango balu. Ikaskuntza prozesu jarraituago bat izateko aukera izango luke, gutxika-gutxika, ikasgaiaren helburuak diren prozesuak barneratzen joan ahalko litzateke.

Ariketa mota hauekin ikasleak ariketa motzen bitartezikasketa prozesu jarraitu bat egiteko aukera izango luke. Adibidez, autoebaluazio ariketak egin ahalko lituzke, gai bakoitzean ikasi beharrekoak ezagutu duen jakiteko. Horretarako, moodlek dituen ariketa mota desberdinak aprobetxatuz: Scorm ariketak, galdetegiak, hotpot, inkestak, etab.

3.2.2.2 Elkarlana

E-learningean oinarritutako eredu pedagogiko bat sortu nahi bada, ezinbestekoa izango da ikasleak tutoretzak jasotzea, feedbackak hartu emateko aukera izatea eta horretarako tresna desberdinak daude moodlen.

Foroa eta tutoretzak.


Ikasgai bakoitzak ikasgai horretako irakaslearekin zuzenean harremana izateko foro bat izango du, bertan, ikasleak ikasgai horrekiko zalantzak adieraz ditzake. Foro bana egongo denez, hezkuntza baliabide garrantzitsu bat izango da ikaslearentzat, izan ere, irakasleari zuzenean galderak, dudak edo zalantzak botatzeko gunea izango du.

Kolaborazioa eta elkarlana.

Foroaz gain kolaborazioko baliabide desberdinak erabil daitezke, izan wikia edo Collaborate erraminta. Azken honek, zuzeneko tutoretza saio bat sortzeko aukera emango luke, kartzela barruan moldatzeko egokiagoa agian, komunikazio zurrunagoa emateko aukera emango dezakelako, foroa uneoro zabalik izan beharrean.

4.LMS proposamena,Moodle plataforma oinarri hartuta

Jarraian, aurretik aipatutako rolak eta baliabideak kontuan izanik,LMS proposamena planteatuko da. Ikasleek espetxeetan plataforma honetara sartzeko inolako eragozpenik izango ez balute bezala.2.2 irudian ikus daitekeenez, ikaslea LMS eredu honen diseinuaren erdian egongo da. Bertan, ikasleak ikaskuntza prozesua egoki aurrera eramateko eta helburuak betetzeko komunikazio kanalak zeintzuk izango diren zehaztuko ditugu, baita zein baliabide erabiliko diren ere. Hala ere, zehaztu behar da plataforma honek bi funtzio desberdin izango dituela, bata kudeaketarako eta bestea hezkuntza helburuetara bideratua. Bereizketa hau izanik EgelaPrerenezaugarrietako bat. Jarraian egingo den aurkezpenean bi funtzioak bereizturik agertuko dira.



1.3 irudia baliabideen komunikazio ibilbideak

Aurretik azaldu bezala, zenbait baliabidek funtzio bikoitza izango dute, beste zenbaitzuk bakarra eta era berean, hainbat kasutan prozedura bakoitzean parte hartuko duten rolak desberdinak izan daitezke edo eta osagarriak bata bestearekin. Horregatik, jarraian oinarrizko banaketa egingo dugu, lehenengoa, zertarako erabiliko diren, kudeaketarako edo hezkuntzarako eta bigarrena ze figura desberdinek hartuko duten parte prozesu bakoitzean. Hori dela eta, baliteke azpiko funtzioaren bat bi tokietan agertzea, erabiltzaile rolen arabera. Zerrendatze hau ordena kronologiko bat jarraituz egingo da.

4.1 Kudeaketa proposamena

4.1.1 Informazioa

Ikasketak martxan jartzea.

Nork? Orientazio teknikariak (preso dauden ikasle guztien EGela Preren administraria).

Nola? Ikasleak dagokion ikasturtean, UPV/EHU n matrícula formalizatzen duenean, EGela Pre bana sortuko du, orientazio teknikariak (administrariak). EGela Pre horretan ikaslea matrículatuta dagoen ikasgai bakoitza agertuko da, gai bezala zehaztuta.

Behin hori sortuta hezkuntza koordinatzaileari administrari rola emango dioberak dagozkien irakasleak sar ditzan eta hezkuntza prozesua martxan jartzen hasteko (aurrerago zehaztuko dugu gehiago). Presondegiko koordinatzailea, edizio baimenik gabeko irakasle bezala emango du altan teknikariak. Eta, azkenik, EGela Pre osoa prest dagoenean ikaslea matrículatuko da.

Matrículabidaltzea

Nork? Orientazio teknikariak presondegiko koordinatzaileari.

Nola? Nahiz eta ikastaro osoa oraindik martxan ez egon, presondegiko koordinatzaileak bera esku dauden ikasle bakoitzaren EGela Prera sarrera izango du. Hemen, ikaslearen dokumentazio administratiboa izango du eskura, nahiz eta, oraindik, dokumentazio pedagogikoa ez izan. Horrela administrazio pausuak aurreratzen joan daiteke: Presoek kudeaketarako baimentzen dituzten pertsonen ziurtagiriak sinatuta bidali, ikasteko eskubide eta baimenak kudeatzen joan eta diru-laguntzarik izango balu bideratu.

Ikasgaiak martxan jartzea

Nork? Hezkuntza koordinatzaileak (ikastetxe batean matrículatuta dauden ikasleen administraria).

Nola? Matrikulatu direnikasgaien irakasleekin harremanetan jarri eta bakoitzari bere ikasgaiaren altan eman. Editatzeko baimendun irakasle bezala.

4.1.2 Komunikazioa

Bibliografia osatzea

Nork? Hezkuntza koordinatzaileak orientazio teknikariari.

Nola? Oinarrizko bibliografian derrigorrezkoak diren liburuak eta Interneten zintzilikatu ezin daitezkeenak, helarazi beharko dizkio orientazio teknikariari ikasleak ahal den eta azkarren ohiko postaz jaso ditzan.

Azterketak martxan jartzea

Nork? Orientazio teknikariak.

Nola? Segurtasun neurriak bermatu asmoz, konfidentziala izan dadin eta dagokionean bakarrik egingo dela bermatu dadin, baldintza duen zereginak sortuko ditu. Ikasturte hasieran, ikasgai bakoitzean bi deialdi jarriko dira martxan eta azterketa ikusgarri egoteko datak zehaztuko dira. Irakaslearen eskubideak bermatzeko, honek benetan ere, azterketa hori egin nahi duela frogatuko duen baldintza bat ezarri beharko da, deialdien kontrola garantizatzeko. Horrela baldintza hau betetzen ez bada, ez aurkeztu bezala ulertuko da. Ez baitu azterketarik ikusiko. Gero, irakasgaiko irakasleak baldintza horretara lotuta igo beharko du bere azterketa (I. eranskinean adibidea).

Notak ematea

Nork? Irakasgai bakoitzeko irakasleak hezkuntza koordinatzaileari.

Nola? Noten ziurtagiria administrazio atalean igota.

4.2 Hezkuntza proposamena

4.2.1 Ikaskuntza autonomia

Ikasgaiak martxan jartzea

Nork? Hezkuntza koordinatzaileak (ikastetxe berean matrikulatuta dauden ikasleen administraria).

Nola? Kudeaketa prozesuan altan emateak bukatu ostean, hezkuntza koordinatzaileak, irakasle bakoitzari azaldu beharko dio, ze baldintza bete behar duten, hau da egokitzapen pedagogikoaren irizpideak azaldu eta jarraitu beharreko eskema eman, denek berdina jarrai dezaten.

Bibliografia osatzea

Nork? Irakasle bakoitzak.

Nola? Hezkuntza koordinatzaileak emandako irizpideak jarraituz, irakaskuntza gida osatu. EGela Pik (UPV/EHU 2017) emandako baldintzak betetzen dituzten dokumentuak beraien ikasgaira igo beharko dituzte. Dokumentu hauek irakurgarri izan beharko dira, hau da, ongi ordenatuta egon beharko dira, zip artxiborik ez da igoko eta izenburuak argi agertuko dira, banan-banan gaizki ulerturik eman ez dadin. Derrigorrezkoak diren liburuak, Interneten zintzilikatu ezin daitezkeenak, hezkuntza koordinatzailearen bidez orientazio zerbitzura bidaltzeko eskatuko da eta irakaskuntza gidan liburuak bidaliko zaizkiola zehaztu beharko da.

Bibliografia jasotzea (online)

Nork? Ikasleak.

Nola?Ikasgaibakoitzeansartuta, bertan, ikaskuntza gidan azaltzen den materiala liburutegian dagoen kontrastatu beharko du. Behin aztertu ostean, bere ordenagailuan gordetzeko edo eta inprimatzeko aukera izango du.

Bibliografia jasotzea (offline)

Nork?Presondegiko koordinatzaileak.

Nola?Atxikita paketeen eta ikasle bakoitzaren foro orokorrean idatzita izango duen zerrendarekin kontrastatu ostean, ziurtatu egin beharko du material guztia jaso duela. Foroaren bitartez jaso duela esan ostean, ikasleari emango dio.

Tutoretzak

Nork?Ikasleak ikasgaiko irakasleari eta alderantziz.

Nola?Tutoretzak egiteko bi bide proposatzen dira. Lehenengoa foroa litzateke, hau, ikasle eta irakaslearen artean komunikatzeko kanal zuzena izango litzateke. Honela, ikasleak bere galderak edo zalantzak egingo lekizkioke irakasleari eta honek ahal den eta azkarren erantzun bat eman beharko lioke.

Era berean tutoretza birtualak izateko aukera ere eman daiteke Collaboratemoodlen erraminta erabiliz, horrela, bideokonferentzia bat egin ahalko litzateke, tutorearekin bakarka edo baita beste ikasle batzuekin batera ere.

Ariketak

Nork?Irakasgai bakoitzeko irakasleak.

Nola?Ikaskuntza prozesu jarraituago bat izateko EGela Prek eskaintzen dituen ariketa mota desberdinekin: Scorm ariketak, galdetegiak, hotpot, inkestak...Ariketa motz hauen bitartez ikasketa prozesu jarraitu bat egiteko aukera izango luke ikasleak. adibidez Autoebaluazio bezala erabil daitekeena adibidez, horrela, gai bakoitzean ikasi beharreko oinarrizkoak ezagutu dituen jakin dezake.

4.2.2 Ebaluazioa

Azterketak martxan jartzea

Nork? Irakasgai bakoitzeko irakasleak orientazio teknikariaren irizpideekin.

Nola? Kudeaketarako, hartutako segurtasun neurriak jarraituz, irakasleak baldintzatutako ariketa horrekin lotu beharko du bere azterketa ikusgarri jartzea. Datak orientazio teknikariak ezarrita dituen ez du beste ardurarik izango. Pdf artxibo bat izango da. Hemen, ikasleak jarraitu beharko dituen pausuak agertuko dira: zenbat denbora duen, ikas materiala erabil dezakeen edo ez, zenbat folio idatz ditzakeen etab.

Azterketak egitea

Nork? Ikasleak.

Nola? Behin, goian aipatutako prozedura administratiboa egin ostean, azterketa deskargatu eta zehaztutako baldintzen arabera, egin beharko du. Bukatu eta gero, eskaneatu eta plataformara igo beharko du. Era berean, presondegiko koordinatzaileari emango dio, denak osatuta dituen originalak ohiko postaz Orientazio Zerbitzura bidaltzeko.

Lanak bidaltzea

Nork? Ikasleak.

Nola? Azterketen kudeaketa prozedimendu bera jarraituz, plataformara igo beharko ditu eskatutako lan edo lanak.

Notak ematea

Nork? Irakasleak.

Nola? Moodle plataformak notak emateko sistema integratuta duenez, irakasleak azterketa jaso eta zuzendu bezain pronto feedbacka plataforman bertan emateko aukera izango luke.

5.LMS implementazioa “EGela Prekartzelan”

2017/2018 ikasturtean UPV/EHU n matrikulatuta dauden ikasle presoen ikaste prozesua hobetzeko, EGela Pi, moodlen oinarritutako, EHUk arautu gabeko irakaskuntza desberdinak emateko plataforma erabiltzea proposatu zen. Guk hemen EGela Pre bezala ezagutuko duguna. Izan ere, momentu honetan ikasketa prozesua egituratuta dagoen bezala, ikasleek materiala jasotzeko, denbora asko itxaron behar izaten dute; bidalketa guzti horien kostua oso altua da unibertsitatearentzat; eta bidean materiala galtzeko arriskua handia da.

Hori dela eta, Frantziako kartzelekin azken urteetan e-mail bidezko komunikazioek ondo funtzionatzen zutela ikusita eta Frantziako unibertsitateetan ikasten duten presoen plataforma bidezko zerbitzu desberdinak martxan dituztela jakinda. Presondegietan dauden EHUko ikasleentzako arreta zerbitzuakurrera pausu bat ematea erabaki zuen.

UPV/EHUko ikasleak dauden Frantziako presondegietako koordinatzaileekin hitz egin ostean, plataformaren bitartez kudeaketa lanak egiteko prestutasuna adierazi zuen batek. Zerbitzuarentzat EGela Pre plataformak aukera asko eskaintzen zituen, lehenengoa, hizkuntzarena zen. Izan ere moodle elementu orokorrak hizkuntza desberdinetan jartzea baimentzen du, beraz, komunikazioa asko errazten du, kontutan izanda Euskal Herriko Unibertsitateak Frantziako presondegiekin bakarrik egiten duela lan gaur egun. Hau aprobetxatuz, plataforman, bakoitzak nahiago duen hizkuntzan murgiltzeko aukera du eta irakasle eta orientazio teknikariek zein irakasleek euskaraz edo gaztelaniaz egin dezakete lan eta presondegiko koordinatzaileek berriz frantsesez.

Ikasleek ez dute Internetarako sarbiderik, beraz komunikazio guztia ikasturte honetan behintzat presondegiko koordinatzailearen bidez egin behar izan da. Ezin ditugu ikasleak altan eman plataforman, beraz momentu honetan, presondegiko koordinatzaileak ikasle rola izan du proiektu pilotu honetan.

Frantziako presondegi batean jarri da martxan EGela Pre, bertan hiru ikasle daude matrikulatuta baina Historian matrikulatuta dagoen ikaslearekin egin da proba. Izan ere,

ikastegiko hezkuntza koordinatzailearen prestutasuna, ezinbestekoa izan da eta kasu honetan bere jarrera aktiboak asko lagundu du. Behean (1.4 irudia) ikus daitezkeen bezala, lau figura desberdinek hartzen dute parte. Ikasgai bakoitzeko irakasleak kanpoan geratzen dira, eta ikastegiko hezkuntza koordinatzaileak bideratzen du material didaktikoaren kudeaketa. Tamalez, aurretik azaldu diren arazoak direla eta, ikaslea, nahiko kanpoan geratzen da, nahiz eta irudian zentroan agertu. Aurretik aipatu bezala, irakasleak, bere kabuz, plataformara sartzeko eskubiderik ez du, beraz ezin da azken erabiltzaile bezala kontsideratu oraingoz.



1.4 irudia: komunikazio erreala

Jarraian, ikasturte honetan EGela Pren martxan jartzea lortu dena adieraziko dugu, aurreko eskema bera jarraituz, kudeaketarako zein hezkuntzarako baliagarriak diren funtzioak bereiziz.

5.1 Kudeaketa esperientzia

5.1.1 Informazioa

Ikasketak martxan jartzea

Nork? Orientazio teknikariak

Nola? Ikasle bakoitzari UPV/EHU n matrícula formalizatzearekin batera, orientazio teknikariak (administrariak) ikasleari EGela Pre batsortu, pribatutasuna mantentzeko asmoz, hitz gako batzuk erabiliz, ikasle bakoitzaren datuak, ikasten duen gradua zehaztuko dira, modu konfidentzian kanpora begirako izenburuetan eta argi eta garbi barnealdeko datuetan.

Behin sortuta hezkuntza koordinatzaileari editatzeko baimendun irakasle rola emango zaio. Hezkuntza prozesua martxan jartzen hasteko (aurrerago zehaztuko dugu gehiago). Presondegiko koordinatzailea ikasle bezala kontsideratuko dugu hemendik aurrera, presoek ezin dutenez sartu, presondegiko koordinatzaileek EGela Pren ikasle rola izango dute. Hala izan dadin, kanpoko ikasle bezala emango dira altan (EHUko helbide elektronikoko bat izatea beharrezkoa da) eta ikasle rolaekin matrikulatuko da, espetxe horretan zenbat ikasle hainbat gela izango ditu. Altan eman bezain pronto, EGela Preplataforma erabiltzeko gida bat bidali zitzaien, helbide eta pasahitzekin batera modu seguruan eta aldatzeko aukera emanez, plataformak bermatzen duen bezala. Beraz kartzelako koordinatzaileak ikasle rola du, oraingoz, eta espetxean dauden ikasle kopuruaren arabera hainbat gela desberdin izango ditu.

The screenshot shows the 'Historiako Gradua' page on the EGela Pre platform. The interface is in Euskara (eu) and includes a navigation menu on the left, a main content area with text in French, and a right sidebar with various sections.

Navigation Menu (NABIGAZIOA):

- Hasiera
- Aginte-panela
- Guneko orriak
- Oraingo ikastaroa
 - Partaideak
 - Dominak
 - Historiako Gradua
- Euskal Herriaren
 - Historia
 - Garaikidea
 - Historia
 - Garaikidea I
 - Historia
 - Garaikidea II
 - Komunikazioa
 - Euskaraz: artea,
 - Geografia eta
 - Historia
- Euskal Herriaren
 - Historia
 - Ekonomikoa
 - Historia
 - Garaikidearen
 - Praktika

Main Content Area:

Historiako Gradua

Sur ce site, vous pouvez trouver du matériel didactique pour l'étudiant à l'élève: vous priant de le remettre le plus rapidement possible

Cet étudiant est actuellement inscrit à l'Université du Pays Basque/Euskal Herriko Unibertsitatea pour obtenir le diplôme en Histoire.

Cette année, afin d'améliorer la communication, nous voulons activer cette plate-forme web, où vous pouvez entrer avec des clés personnelles, dans lequel vous aurez accès au matériel pédagogique des étudiants afin qu'ils puissent vous l'envoyer plus rapidement. Si vous ou l'élève avez des questions, vous pouvez aussi le faire directement depuis cette page web.

De plus, nous vous communiquons les dates des examens pour les deux sessions pour l'année académique 2017-2018:

- 1ère session: **16-29 mai 2018**
- 2ème session: **3-12 septembre 2018**

Resources:

- Information pour RLE
- Informations supplémentaires et demandes de renseignements
- Guide de diplôme pour l'étudiant
- Reçu de l'inscription
- Documentation administrative
- Envoyer des fiches d'information réalisées

Right Sidebar:

- BILATU FOROETAN:** Search bar, 'Joan' button, 'Bilaketa aurreratua' button.
- AZKEN BERRIAK:** 'Gaia gehitu...', 'Réponse- Demande du 6 mars', 'Information pour RLE', 'Gai zaharragoak ...'
- DATOZEN EKITALDIAK:** 'Ez dago ekitaldirik laster', 'Joan egutegira...', 'Ekitaldi berria...'

1.5 irudia: EGela Pre kudeaketarako

Matrikula eta informazio administratiboa bidaltzea.

Nork? Orientazio Teknikariak presondegiko koordinatzaileari

Nola? Historiako ikaslearen gelan (1.5 irudian) presondegiko koordinatzaileak ikasle bakoitzeko amankomuna den informazioa agertzen da, behar beharrezkoa izaten duten informazioa dute hemen; lehenik eta behin ikasturteko egutegia; Bigarren, plataforma erabili ahal izateko gida; eta matrikula orria, behar-beharrezkoa presondegian ikasleak, ikasteko baimenak eta baldintzak lortu ahal izateko.

5.1.2 Komunikazioa

Kudeaketarako informazioa egunean izatea

Nork? Orientazio Teknikariak presondegiko koordinatzaileari eta alderantziz

Nola? Foroaren bitartez, orientazio teknikariak, datak bir gogoratzen ditu. Eta era berean, presondegiko koordinatzaileak izan ditzakeen arazoak planteatzeko tokia du.

Ikasleak eman behar dituen baimen administratiboak ematea

Nork? Presondegiko koordinatzaileak orientazio teknikariari

Nola? Zereginen atalaren bitartez, koordinatzaileak ikaslearen dokumentu administratibo sinatuak bidaltzen ditu orientazio zerbitzura behar beharrezkoak baitira hauek administrazioarekin edozein dokumentu bideratzeko.

5.2 Hezkuntza esperientzia

5.2.1 Ikaskuntza autonomia

Ikasgaiak martxan jartzea

Nork? Hezkuntza koordinatzaileak (ikastetxe batean matrikulatuta dauden ikasleen gelan administraria)

Nola? Kudeaketa prozesuaren alta emateak bukatu ostean, hezkuntza koordinatzaileak, irakasle bakoitzari azaldu beharko dio, ze baldintza bete behar duten, hau

da egokitzapen pedagogikoaren (Etxague, 2008) irizpideak azaldu eta jarraitu beharreko eskema emango zaie, denek berdina jarrai dezaten. Hauek bibliografiak eta gidak osatuta dituztenean, hezkuntza koordinatzaileari pasatuko diote. Ikastetxeko hezkuntza koordinatzaileakikaslea matrikulatuta dagoen ikasgai bakoitzean programa guztiak igoko ditu. Ikasgaiaren izena eta *programme* (1.6 irudia) agertzen den dokumentua. Bertan, ikasgaiaren helburuak, bibliografia zerrenda eta ebaluazio irizpideak eta metodoak agertuko dira.



1.6 irudia: Ikasgaien egitura

Material didaktikoa osatzea

Nork? Hezkuntza koordinatzaileak

Nola?Irakaskuntza gidak dagozkien ikasgaietan zintzilikatu ostean,Jasotako material bibliografikoa, EGela Prekemandako baldintzen arabera jabetza intelektualaren errespetatzen dela ziurtatu ostean, dagozkien irakasgaietara igotzen dira. Ikasgai bakoitzean, 1.6 irudian ikus daitezkeen bezala, liburutegi bat sortuz.

EGela Pren zintzilikatu ezin daitezkeen materialak eta liburuak Orientazio teknikariari bidali,posta arruntez, presondegiko koordinatzaileari helarazteko.

Material didaktikoa jasotzea (online)

Nork?Presondegiko koordinatzaileak

Nola?Ikasgai bakoitzean sartu eta ikasgai bakoitzeko liburutegian dagoen material didaktikoa: artikulak, apunteak, erreferentziako lanak, etab.jaitsi. Ikasleari pendrive baten bitartez etaikasgaika ordenatuta helarazi. Inprimitzea posible dena, paperean eman eta bestela bere ordenagailuan ikaslearen eskura jarri.

Liburuak jasotzea

Nork?Presondegiko koordinatzaileak

Nola?Atxikita paketean jasotako zerrendarekin kontrastatu ostean, ziurtatu egin beharko du material guztia jaso duela. Foroa du eskaerak egiteko baina e-maila erabiltzen jarraitzen du hasieran falta den materialaren eskaera egiteko.

Bibliografia osatua dagoela bermatzea

Nork?Ikasleak presondegiko koordinatzailearen bitartez

Nola?Ikasleak jasotako materiala aztertu ostean, gertatu izan ohi da, gairen bat edo libururen bat faltatzea. Horretarako ikasgai bakoitzak du bere foroa, bertan presondegiko koordinatzaileak ze material falta zaion jakinaraziz gero, dokumentazio hori osatzeko prozedura jartzen da martxan, orientazio teknikari eta hezkuntza koordinatzaileek batera informazio hori jasotzen dute eta. Behin falta den materiala lortu eta igotzen denean,

foroaren bitartez, jakinarazten zaio presondegiko koordinatzaileari eskuragarri duela. Ikusi

1.7 irudia


Annonces

matériel demandé "Komunikazioa Euskaraz: artea, Geografia eta Historia"

Harpidetuta

Erantzunak hariaren arabera erakutsi

Mugitu eztabaida hau hona:

**matériel demandé "Komunikazioa Euskaraz: artea, Geografia eta Historia"**
ITSASO IZAGIRRE NARBAIZA - asteazkena, 2018(e)ko martxoaren 21(e)an, 11:34(e)an

Bonjour,

Ci-joint le matériel demandé par l'etudiant pour préparer ce sujet:

[Ahozko_Atala](#)

Merci beaucoup de nous tenir au courant par **ce forum**.

Bien cordialement,

1.7 irudia: Foroa

5.2.2 Ebaluazioa

Azterketak martxan jartzea

Nork?Hezkuntza koordinatzaileak eta orientazio teknikariak

Nola?Kudeaketarako, UPV/EHU protokoloak segurtasun neurriak bermatzeko asmoz,baldintzadun zereginak sortu dira. Ikasgai bakar batean egin da proba, lehenengo deialdian, ekainaren 1era arte egon da zabalik azterketa egiteko zeregina. Bertan koordinatzaileak eman beharreko pausuak irakur zitzakeeneta l.eranskina ikasleak sinatzeko zuen deskargagarri. Modu honetan, ikasleak benetan ere, azterketa hori egin nahi duela frogatuko da, baldintzadun zeregina izanik, behin dokumentu hori igotzen denean, kalifikazio gabe, prozedimendua arintzeko,azterketa ikusi eta deskargatzeko aukera zabalduko zaio hezkuntza koordinatzaileari eta ondorioz, ikasleari.

Azterketak egitea

Nork?Ikasleak eta presondegiko koordinatzaileak

Nola?Behin goian aipatutako prozedura administratiboa egin ostean, azterketa deskargatu eta bertanirakasleak zehaztu dituen baldintzen arabera, egin beharko du. Azterketa egin ostean, eskaneatu eta plataformara igo beharko du, presondegiko koordinatzaileak. Era berean, presondegiko koordinatzaileari emango dio, denak osatuta dituenean originalak ohiko postaz Orientazio Zerbitzura bidaltzeko.

Lanak bidaltzea

Nork?Presondegiko koordinatzaileak

Nola?Azterketen kudeaketa prozedimendu bera jarraituz, plataformara igo beharko ditu eskatutako lan edo lanak. Era berean ohiko postaz ere Orientazio Zerbitzura bidali beharko dira.

Notak ematea

Nork?Hezkuntza koordinatzailea

Nola?Ikaslearen espedientean garbatzen direnean nota guztiak, hezkuntza koordinatzaileak, ikaslearen Egelan zintzilikatuko ditu. Ez bada ikasleak espresuki berari zuzenean posta elektronikoz bidaltzea eskatzen digula

6. Emaitzak eta ondorioak


6.1 Esperientziaren emaitzak

Esan bezala, 2017/2018 ikasturteko azaroan, EGela Pre plataforma martxan jarritzen Historia ikasten duen Frantziako espetxe batean dagoen ikasle batekin. Jarraian diseinaturiko esperientzia abiaraztean izandako arazoak aipatuko dira eta horiei irtenbide emateko proposatu diren konponbideak.

EGela Pren material guztia osatuta egon ahala, foroaren bidez jakinarazten zitzaion presondegiko koordinatzaileari non deskarga zezaken informazioa. Ikasgai bakoitzaren foroan egitenzen sarrera, koordinatzailea ez galtzeko baina, badirudi, informazio errepikakor larregi zela. Ez dugu feedbackik jaso foroaren bitartez ekainera arte, orduan erantzun du lehenengoz espetxeko koordinatzaileak azterketa bati dagokion duda bat argitzeko.

Material didaktikoa jasotzeko ZIP artxiboekin ere zailtasunak zituztela jakinarazi ziguten e-mail bidez, horiek horrela, liburutegian zegoen materiala artxibo solteetan igo ostean, orientazio teknikariak foroaren bitartez, estekak txertatuta deskargatzeko moduan zeudela jakinarazten zien.

Bestalde, moodlek duen txostenen estatistika baliabideari esker, badakigumezu guztiak irakurrita daudela, bai eta artxiboak deskargatuta dituztela ere. Kudeaketarako oso erabilgarria da, izan ere, presondegiekin harremana zentzu honetan askotan zaila izaten da; ezin baita jakin materiala ondo heldu den; ikasleari heldu zaion; edo espetxeko guneren batean galduta dagoen. Baliabide honi esker, beraz, presondegiko hezkuntza koordinatzaileari heltzen bazaio, %90ean ziur egon gaitezke ikasleari helduko zaiola.



1.8 irudia: Ikaslearen (kasu honetan Presondegiko koordinatzailea) aktibitatea

Maiatzean, azterketa garaian, ikasgai bateko azterketarekin egin zen proba, aurretik azaldutako zeregin baldintzatuen baliabidea erabilia. Saiakera horretan, ikasleak espetxeko koordinatzailearen bitartez l. eranskinadeskargatu eta beteta igo behar zuen azterketa ikusi ahal izateko. Baldintza hori betetzeak, ikasleak azterketa egin nahi duela esan nahiko du, horrela, deialdien kontrola bermatuko da. Hau da, dokumentu hau igotzen bada, ikasleak azterketara aurkeztu nahi duela esango du. Baldintza hau ezartzea oso garrantzitsua da, EHUko protokoloa bermatzeko. Errealitatean, aldiz, ez zen bideragarria izan. Espetxeko koordinatzailearentzat lan larregi zelako. Kontuan izan behar da aste bete dutela azterketak egiteko, oso ordu murrizetan, gainera. Horretaz gain, posible da inprimagailua eta eskanerra toki berean ez izatea, beraz, espetxetik hori dena egiteko prest ez zeudela esan ziguten. Beste aukera bat, ikasleak galdetegi bati erantzutea litzateke; behin galdetegia erantzunda data ezarri eta azterketa ikusi nahi duela esatea, nahiko izango zen, azterketa deskargatu ahal izateko. Hori bai, azterketa behin bakarrik deskargatzeko aukera eta egun horretan bertan igo beharko luke, azterketaren baldintzek zehazten duten ordutegian.

Azkenean, arazoe-mail bidez konpondu behar izan zen, azterketa pasahitz batekin zifratuta espetxeko koordinatzailearibidalita, honek deskargatu eta ikasleari eman ahal izateko. Nahiz eta zeregina, hau da, azterketa ez duten EGelaPreren bitartez kudeatu, hein batean,

protokoloak esaten dituen segurtasun neurriak bermatuta azterketa bidaltzea lortu zen. Atzerapen haundirik sortu gabe.

Aurrera begira, zereginak atala ikasleak egindako lanak igotzeko baliabide bezala proposatuko da.

6.2 Ondorioak

Lehenik eta behin esan behar da, LMS eredu baten hastapen txikia dela honako hau, guk kontrolatu ezin ditugun baldintza askoespetxeen politiken esku baitaude. Beraz, plataforma honekin eman daitezkeen aurrerapausoak oso handiak izan daitezke behean agertutako puntu nagusietan, beti ere, espetxeek onartzen badizkigute.

- **IKT Konpetentziak garaturol desberdinen artean.**

Moodlen oinarritutako plataforma hau erabiltzeak, prozesu honetan guztian inplikatur dauden pertsonen konpetentzia digitalen garapenean eragina du. Hona adibide batzuk, orientazio teknikariak barneratuko dituenak, batez ere, EGelaPreplataformaren segurtasunari eta kudeaketari lotutakoak; baita ikastegiko zein espetxeko koordinatzaileak jasotakoak, beraien kasuan, informazioaren kudeaketa landu da. Momentuz, hiru rol horiek soilik erabili dute plataforma, hori dela eta, oraingoz, ezin izan diegu ikaslearen konpetentzia digitalei sakonki erreparatu nahiz eta beraiek ere, hein batean, informazioaren kudeaketari dagozkien lehenengo pausuak ematen edota jaso duten dokumentazio guztia ordenatzen ikasi behar izan duten, bai eta lanak, hau da, eduki digitalak sortzen ere.

- **Komunikazioa arindu eta kudeaketa seguruago bat bideratzeko**

Plataforma honek eman digun ekarpenik handiena, kudeaketa arintzeko tresna sortzea izan da. Hau da, espetxeko hezkuntza koordinatzailearekin komunikazio arin bat izateko baliabidea eraginkorra jarri da martxan. Ikasleak behar duen materiala berehalakotasunean eta modu seguruan helaraztea. Kasu honetan seguru hitzak zera esan nahi du: ikasleari bidali zaion informazioa heldu zaiola jakitea. Egia da komunikazio ia gehiena ez dela

plataformaren bitartez egin, hala ere, lehenengo pausuak eman dira ikasturte honetan eta aurrera begira kudeaketarako baliabidea egokia EGelaPre izan daitekeela aurreikus daiteke.

- **Hezkuntza egokitzapen beharra**

Zentzu honetan bi ardatz nagusi aipatu behar dira, lehena, espetxearen esku dagoena, plataforma honen erabilera ikasleei bermatzea. Hau da, espetxean, baliabide honetarako sarreraikasleekizatea, nahiz eta, mugatua izan. Ikasle bakoitzak bere erabiltzailea izatea eta espetxeko politikak zehazten dutenaren arabera bertan zintzilikatuta dagoen materialera sartzeko aukera irekia izatea. Horrela dokumentazioa eskuragarri izateaz gain, tutoretza birtualak izateko aukera izango lukete, bai foroaren bitartez bai espetxeak onartutako beste baliabide bat erabilita. Hau baita, egun ikasle presoek orokorrean duten kexa nagusienetakoa, tutoretzarik jasotzeko baliabide eta aukera eza, hain zuzen. Lortuko bagenu aitzindari bihurtuko ginateke.

Proposamen hau onartuko balitz, irakasleek eskaintzen duten materialean moldaketa pedagogikoak egin beharko lirateke elearning-a eta espetxean onartzen diren aukerak aintzat hartuta; horren ostean, irakaskuntza gida pedagogiko bat sortuko litzateke ikasgai guztietako irakasleei egokitzapen on bat egiteko erreminta izango zena. Bide batez, proiektu honetan parte hartzen duten eragileen kompetentzia digitalak garatzeko aukera izango genuke.

7. Bibliografía

Barberà, E. (2008). Aprende e-learning . *Barcelona: Paidós*

Barreiro-Gen, M., & Novo-Corti, I. (2015). Collaborative learning in environments with restricted access to the internet: Policies to bridge the digital divide and exclusion in prisons through the development of the skills of inmates. *Computers in Human Behavior*, 51, 1172-1176.

Brito, J. G., Rojas, A. V., & Gallego, M. J. C. (2010). Estudios superiores en la educación penitenciaria española: un análisis empírico a partir de los actores. *Revista de educación*, (353), 307-308.

Etxague, X. (2008). Ohiko programa presondegietan dauden ikasleei Egokitzeko gida. Hemendik berreskuratuta 2018ko maiatzaren 5ean:<https://www.ehu.eus/documents/3026289/3470176/Egokitzapen+Gida/ad12dcf3-266d-4d31-ab5a-b470cd1d7aa8>

Garrison, D. y Anderson, T. (2005). *El e-learning en el siglo XXI. Investigación y práctica*. Barcelona, España: Ediciones Octaedro, SL López, S. C. (2015). El EEES: problemas y soluciones en la educación universitaria a distancia. *Actualización de los nuevos sistemas educativos*, 25.

Hawley, J., Murphy, I., Souto-Otero, M. (2013). Prison education and training in Europe: current state-of-play and challenges. Hemendik berreskuratuta:http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/repository/education/library/study/2013/prison_en.pdf

Moodle.(2018). Moodle dokumentazioa. Hemendik berreskuratuta 2018ko urtarrilaren 22an : https://docs.moodle.org/35/en/Main_page

Moledo, M. L., Portela, C. V., & Álvarez, J. G. (2017). La universidad en un centro penitenciario: una razón más para la Pedagogía. *Revista de Estudios e Investigación en Psicología y Educación*, (08), 62-67.

Moreira, J. A., Reis-Monteiro, A., & Machado, A. (2017). La educación superior a distancia y el e-Learning en las prisiones en Portugal. *Comunicar: Revista Científica de Comunicación y Educación*, 25(51), 39-49.

Rojas, A. V. (2003). La educación a distancia en prisión. Estudio de los alumnos de la uned internos en centros penitenciarios (Distanceeducation in prison. Study about students of the UNED internal in prison). *RevistaIberoamericana de Educación a Distancia*, 6(2), 97.

UPV/EHU. (2004)**Euskal Herriko Unibertsitatearen protokoloa Presondegietan diren Pertsonen buruzkoa.**Hemendik bereskuratutaUPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2004ko urriaren 28an onartuta:

<https://www.ehu.eus/documents/3026289/3470176/Protokoloa++EUSk.pdf>

UPV/EHU. (2017). EGela Pi erabiltzeko baldintzak. Hemendik bereskuratuta 2017ko urriaren 15ean:

<https://www.ehu.eus/documents/1852718/3389650/eGela+PI+erabiltzeko+baldintzak/4fe919a4-8498-4364-886e-08da311225df>

Vázquez Cano, E. (2013). Expectativas, obstáculos y hábitos de estudio de los internos que cursan enseñanzas universitarias en la UNED. Un estudio de caso: centro penitenciario Madrid VII: Expectations, Obstacles and StudyHabits of InmatesEnrolled at theNationalDistanceEducationUniversity. A Case Study: Madrid VII Prison. *Ministerio de Educación*

8. Eranskinak

I Eranskina



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

PRESONDEGIETAKO IKASLEEN HARRERAKO ZERBITZUA
SERVICIO DE ATENCIÓN AL ALUMNADO EN CENTROS PENITENCIARIO:

HISTORIA GARAIKIDEA I

INSTRUCTIONS POUR L'EXAMEN

- La durée de cette épreuve: 2 heures et 30 minutes
- L'élève peut utiliser du matériel d'aide
- Nombre de feuilles: 6 (4 feuilles pour répondre et 2 feuilles pour faire des brouillons).

JARRAIBIDEAK AZTERKETA EGITEKO

- Iraupena: 2:30
- Material didaktikoa erabiltzeko aukera: Bai
- Orriak erabiltzeko beharra: 6 (Erantzunak emateko, eta bi, behar izanez gero, zirriborrak egiteko).

L'élève doit savoir que s'il signe le document la convocation sera comptabilisée. Dans le cas, où il déciderait de ne pas le faire, il ne faut pas mettre en ligne le document sur le plateforme.

Ikasleak jakin behar du dokumentua sinatzen badu deialdia zenbatuko dela. Ez sinatzea erabakitzen badu, ez da igo behar dokumenturik plataformara.

NOMS ET PRENOM/ IZEN ABIZENAK:

MATIÈRE IRAKASGAIA	EXAMEN AZTERKETA	TRAVAIL LANA	DATE DATA	SIGNATURE DE L'ÉLÈVE IKASLEAREN SINADURA

Remarque: Quelques matières sont évaluées par examen, par travail ou par les deux modalités. Remplir avec une X ce qui convient.

Oharra: Irakasgai bakoitzaren ebaluazioa azterketa edo/eta lanaren bitartez izan daiteke. Egokia dena X batekin bete.

Cachet du Centre Pénitentiaire
Presondegiko zigilua